

Dekretu zk.: 2023 / 591 **Data:** 2023/06/30
Eskatzailea: LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.L.
Gaia: LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.L. ERAKUNDEARI 2023KO DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEA

Espediente zenbakia: 2023-00649

XEDEA

LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.L. ERAKUNDEARI 2023KO DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO PROPOSAMENA, LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.L. ERAKUNDEA ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN ARTEAN 2020AN SINATU ETA INDARREAN DAGOEN HITZARMENAREN ARABERA, HITZA EUSKARA HUTSEZKO EGUNKARIAREN PROIEKTUA GARATZEKO (Esp. Zk.: 2023-00649).

AURREKARIAK

Indarrean dagoen 2023rako udal aurrekontuak 21.000 euroko diru-laguntza nominatiboa aurreikusten du Lea Artibaialdeko Hedabideak S.L. (HITZA) erakundearen alde.

Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L. erakundeak (IFZ: B95284857 / helbidea: Arretxinaga etorbidea 1 – Markina-Xemein 48270) ekarpen hori eskatu du 2023ko ekainaren 30ean (erregistro telematikoaren zk.: 046-2023-2164), Gernika-Lumoko udalerrian HITZA euskara hutsezko egunkariaren proiektua garatzeko, erakunde bien artean sinatu eta indarrean dagoen hitzarmenari jarraiki (Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 22an onartutako hitzarmena 2020-2023 eperako).

Aipatu diru-laguntza nominatiboa emateko justifikazio memoria 2023ko ekainaren 22an idatzi zuen eskumena duen teknikariak, espedientearen agertu bezala.

Udal kontuhartzaitzak egiaztatu du kreditu nahikoa eta egokia dagoela 2023ko aurrekontuko 5-3354-22603 partida ekonomikoaren kargura diru-laguntza nominatibo hori emateko.

OINARRI JURIDIKOAK

I.- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan ezartzen denez, zuzenean eman ahal izango dira, besteak beste, aurrekontu orokorretan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntzak, hitzarmenetan eta diru-laguntza horiek arautzen dituen araudian aurreikusitako baldintzetan. Era berean, lege beraren 28. artikulua ezartzen du hitzarmenak ohiko tresna izango direla aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntzak bideratzeko.

II.-Erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu du, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako kausaren bat dela-eta diru-laguntzen onuradun ez izateari buruzkoa, bai eta jarduera bera finantzatzeko eskatutako eta/edo jasotako beste laguntza batzuei buruzkoa ere.

Era berean, adierazi du egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta nolanahi ere, baimena eman dio Gernika-Lumoko Udalari inguruabar horiek ziurtatzeko bere kabuz.

III.- Lea Artibaialdeko Hedabideak S.L. (HITZA) erakundea legez erata dagoela (IFZ: B95284857 / helbidea: Arretxinaga etorbidea 1 – Markina-Xemein 48270).

IV.- Diru-laguntzei buruzko indarrean dagoen udal-ordenantzaren 35. artikulua udal-diru-laguntza nominatiboak emateko prozedura arautzen du.

Beraz, Alkatetzak EBATZI DU:

Lehenengoa.- Lea Artibaialdeko Hedabideak S.L. (HITZA) erakundeari (IFZ: B95284857 / helbidea: Arretxinaga etorbidea 1 – Markina-Xemein 48270) 21.000 euroko diru-laguntza nominatiboa ematea, Gernika-Lumoko udalerrian HITZA euskara hutsezko egunkariaren proiektua garatzeko, erakunde bien artean sinatu eta indarrean dagoen hitzarmenari jarraiki (Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 22an onartutako hitzarmena 2020-2023 eperako).

Bigarrena.- Laguntza hau bateragarria izango da jarduera bera finantzatzeko beste edozein laguntzarekin, baina inola ere ez da egongo gainfinantzaketarik.

Hirugarrena.- Diruz lagundu ahal izango dira diruz lagundutako jarduerari edo proiektuari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, eta behar bezala egiaztatu beharko dira legez dagokion fakturaren edo dokumentuaren bidez.

BEZa diruz lagundu ahal izateko, ezinbestekoa izango da diruz lagundutako erakundeak ezin berreskuratzea edo konpentsatzea, eta hori behar bezala egiaztatu beharko da.

Nolanahi ere, diruz lagundu ahal izango dira aurreko baldintzak betetzen dituzten eta 2021. urtean egiten diren gastuak.

Laugarrena.- Diru-laguntza hori Gernika-Lumoko Udalaren 2023ko gastuen aurrekontuko 5-3354-47100 partida ekonomikoaren kargura ordainduko da.

Ordainketa entrega bakarrean egingo da, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpen hau ematen denetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena.- Udalbatzak 2012/11/28an onartutako Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra betez, hizkuntza-irizpideei dagokienez, honako artikulua hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan:

"10.2 art.: "Indarrean dagoen Euskararen Erabilerarako Udal Ordenantzaren 24. artikuluan ezarritakoa bete beharko da. Bertan adierazten denez, diru-laguntzen onuradunek, eremu publikoan jarduten duten heinean, euskaraz idatzi eta jakinarazi beharko dituzte diruz lagundutako jarduerari buruz argitaratzen dituzten idazkiak, abisuak eta gainerako komunikazioak, ahoz edo idatziz, eta, era berean, arau hori bete beharko dute diruz lagundutako jarduera garatzeko udal-instalazioak erabiltzen badituzte.

(...)"

55. art.: "Honako jokabide hauek arau-hauste larriak dira:
c) Diruz lagundutako jardueran nahitaez bete beharreko hizkuntza-irizpideak ez errespetatzea, 2. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera. "

Euskara behar bezala tratatzeko, Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntza eskaintzen zaio onuradunari, betiere zerbitzu horren aukeren arabera.

Seigarrena.- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, 2023ko ekitaldia amaitu eta hurrengo **bi hilabeteen** barruan diruz lagundutako erakundeak justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu beharko du onuradunak. Kontu horretan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra (887/2006 Errege Dekretua) garatzen duen Erregelamenduaren 75. artikuluan aipatzen den informazioa jasoko da:

a) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen jardueramemoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data zehaztuta. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, itzultzeko ordainketa-gutuna, bai eta horien ondoriozko interesena ere.

Diru-laguntza ematen duen organoak egokitzen josten dituen eta diru-laguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten justifikazioak egiaztatuko ditu. Horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio hautatutako gastu-egiaztagiria bidal ditzala. Diru-laguntza honetarako, 200 euroko edo gehiagoko zenbatekoa duten frogagiritan finkatzen dira egiaztagiri horiek (zergak kanpo).

Zazpigarrena.- Onuradunak jasotako diru-laguntzaren berri eman beharko du, 19/2013 Legean eta 2/2016 Legean (ETEL) ezarritako moduan eta baldintzetan. Era berean, diru-laguntza honen xede diren jardueren eta/edo jardueren finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egin beharko du.



Zortzigarrena.- Ebazpen hau erakunde interesdunari jakinaraziko zaio. Era berean, horren berri emango zaio Udal Diruzaintzari, eta legez ezarritako publizitatea emango da Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, legeak xedatu moduan.

Gernika-Lumon, 2023ko ekainaren 30(e)an erabakia.

ALKATEA

-Jose M^a Gorroño Etxebarrieta-

